

Xedapen Orokorrak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

1524

49/2009 DEKRETUA, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.

Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 Lege orokorrak, otsailaren 27koak, Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin-politikan ardatz gisa hartu beharreko oinarriak ezarri zituen. Oinarri horien artean dira, besteak beste, hasierako prebentzio eta minimizazioaz eta berrerabilpena bultzatzeaz gain, birziklapena eta balorizatzeko eta zikloak ixteko beste edozein modu, balorizatu ezinako hondakinak behar bezala ezabatzea eta haiek behar bezala kudeatzeko beharrezko baliabideak ezartzea.

Lege horren 71. artikulua araberak, ekoizpen- eta kudeaketa-jarduerak desberdinetarako baimen-araubide espezifikoak erregelamenduz ezarri ahal izango dira, eta baimen horietarako baldintzat hartu ahal izango dira sor litezkeen kalteetarako erantzukizun zibileko aseguruak egitea eta jardueran sor litezkeen erantzukizunengatik administrazio baimen-emaiaren aurrean erantzuteko fidantza bat ordaintzea.

Halaber, Hondakinen apirilaren 21eko 10/1998 Legeak hondakinak ezabatzeko jarduerak arautzen ditu hondakinen kudeaketari buruzko bere II. kapituluaren, eta jarduerak horiek ingurumen-gaietan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko organoak baimentzearen mende jartzen ditu.

Ondoren, hondakinak hondakindegian biltegitratuta ezabatzeari buruzko 1481/2001 Errege Dekretuak, abenduaren 27koak, hondakinak hondakindegian biltegitratuta ezabatzeari buruzko arautze espezifikoak egiten du, eta hondakinak botatzeari buruzko apirilaren 26ko 1999/31/CE Zuzentaraua barne-zuzenbidean sartzen du.

Horrenbestez, hondakindegia handitu eta aldatzea Hondakinen apirilaren 21eko 10/1998 Legeak aurreikusten duen hondakinak ezabatzeko jarduerak baimentzeko araubidearen mende dago eta, hala dagokionean, poluzioaren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak ezarritakoaren mende.

Araudi horren onarpenak hondakin geldo edo galdotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuak ezarritako araubide juridikoarekiko zenbait desadostasun azaleratu ditu. Dekretu hori onartu egin zuten bere garaian eta araudi aitzindaria izan zen, baina ordutik hona hondakin-kudeaketaren alorrean adostutako xedapen berriek gaintu egin dute.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

1524

DECRETO 49/2009, de 24 de febrero, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y la ejecución de los rellenos.

La Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección de Medio Ambiente del País Vasco estableció los principios que deben inspirar la política de la Comunidad Autónoma en materia de residuos. Entre estos principios se encuentra, tras la prevención y minimización en origen y la incentivación de la reutilización, el reciclado y cualesquiera otras formas de valorización y cierre de ciclos, la adecuada eliminación de los residuos que no puedan valorizarse y la implantación de los medios necesarios para su correcta gestión.

El artículo 71 de la citada norma establece que reglamentariamente se podrán establecer regímenes de autorización específicos para las distintas actividades de producción y gestión, condicionando la autorización a la constitución de un seguro de responsabilidad civil por daños y a la prestación de una fianza para responder ante la administración autorizante de posibles responsabilidades en el ejercicio de la actividad.

Por su parte la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos, regula las actividades de eliminación de residuos en su Capítulo II sobre la gestión de los residuos, sometiendo dichas actividades a autorización del órgano competente en materia de medio ambiente de la Comunidad Autónoma.

Posteriormente, el Real Decreto 1481/2001, de 27 de diciembre, sobre eliminación de residuos mediante su depósito en vertedero, realiza una regulación específica sobre la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero, transponiendo al derecho interno la Directiva 1999/31/CE de 26 de abril, relativa al vertido de residuos.

Así, la creación, ampliación y modificación de vertederos está sometida al régimen de autorizaciones de las actividades de eliminación de residuos previsto en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos, y en su caso, a lo establecido en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación.

La aprobación de esta normativa ha puesto de manifiesto una serie de divergencias respecto al régimen jurídico establecido por el Decreto 423/1994, de 2 de noviembre, de gestión de residuos inertes e inertizados, normativa pionera aprobada en su día que sin embargo ha quedado superada por las nuevas disposiciones acordadas en materia de gestión de residuos.

Horregatik, hondakinak hondakindegietan utzita kudeatzeari buruz Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen araudia egokitzea da arau berri honen xedea, eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegorako hondakindegietan hondakinak ezabatzeko arau-esparrua finkatzen du.

Hondakinak hondakindegietan ezabatuta behar bezala kudeatzeko, azken hondakinak, hots, tratamendu-prozesu batetik datozelarik bestelako kudeaketa-biderik ez dutenak, behar bezala ezabatu beharko dira, ingurunea kutsa ez dezaten, eta pertsonen osasuna eta haien gauzak arriskuan jar ez ditzaten. Horretarako, euskal herritar eta enpresei hondakinak ingurumenarekiko zuzen jokatu eta eraginkortasunez tratatzeko moduak eskainiko dizkieten azpiegiturak jarri behar dira. Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko II. Ingurumen Esparru Programak (2007-2010) helburu gisa ezartzen ditu naturako baliabideak modu iraunkorrean kontsumitzea, hondakinen sorrera prebenitzea eta, beste irtenbiderik ez dagoenean, hondakinak behar bezala ezabatzea.

I. tituluan, xedapen orokorrak jaso dira, eta bertan arauaren helburua zehazten da, bai eta hondakinak hondakindegian biltegituta ezabatzeari buruzko abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuaren birtatez barne-zuzenbidean sartutako erkidego-araudian jasotzen diren kontzeptuei dagozkien definizioak ere.

II. tituluan, hondakinak biltegituta ezabatzeko instalazioen araubide juridikoa finkatzen da, eta hondakindegia sailkatzen dira, bakoitzean onar daitezkeen hondakinen arabera, eta hondakindegien betekizun orokorrak zehazten dira, bai eta onarpen-prozedura ezarri ere, hondakindegietan hondakinak onartzeko irizpide eta prozedurak ezartzen dituen 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren Erabakiak agindutakoaren arabera.

Titulu horrek hondakinak hondakindegietan ezabatzeko lanetarako baimen-araubidea arautzen du. Horretarako, adierazten du ezen, lanak poluzioaren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko araudia- ren mende badaude, hari dagokion ingurumen-baimen integratua eskuratzea beharrezkoa izango dela. Gainerako instalazioek Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-gaiztaren eskumena duen sailaren baimena lortu beharko dute. Nolanahi ere, alde zuzenetik erantzukizun zibileko aseguruaren kontratua sinatu beharko da, bai eta fidantza ordaindu ere.

Azkenik, titulu horretan, hainbat kontrol- eta zain- tza-mekanismo finkatzen dira ustiapen-faserako, bai eta jardun-uzterako eta itxiera osteko aldirako ere. Esparru horretan aipatzen da ezabatze-lan horiek bultzatzen di- tuen pertsona fisiko eta juridikoak lurzorua ez kutsatze- ko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legean aipatutako betebeharrak bete beharko dituela.

En este sentido, con esta nueva norma se pretende adecuar la normativa autonómica en materia de gestión de residuos mediante su depósito en vertedero, fijando el marco normativo de la eliminación de residuos en vertedero para la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La adecuada gestión de los residuos mediante su eliminación en vertedero pasará por la necesidad de que los residuos finales, es decir, aquellos que procedentes de un proceso de tratamiento no posean otra vía de gestión, sean eliminados adecuadamente para evitar que contaminen el entorno y pongan en riesgo la salud de las personas y sus cosas, para ello se requiere una dotación de infraestructuras que ofrezcan a la ciudadanía y empresas vascas formas eficientes de tratamiento ambientalmente correcto de los residuos. Por ello el II Programa Marco Ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco (2007-2010) establece como objetivos un consumo sostenible de recursos naturales, la prevención en la generación de residuos y una correcta eliminación cuando sea inevitable.

En el Título I se recogen las Disposiciones Generales regulándose el objeto de la norma así como las definiciones que se adecuan a los conceptos recogidos en la normativa comunitaria que fue objeto de transposición mediante el Real Decreto 1481/2001, de 27 de diciembre, sobre eliminación de residuos mediante su depósito en vertedero.

En el Título II se establece el régimen jurídico de las instalaciones de eliminación de residuos mediante su depósito, fijándose una clasificación de vertederos en función de los residuos admisibles en cada uno de ellos, determinándose los requisitos generales de los mismos, y el procedimiento de admisión de conformidad con lo dispuesto en la Decisión del Consejo de 19 de diciembre de 2002 por la que se establecen los criterios y procedimientos de admisión de residuos en los vertederos.

En este Título se regula el régimen de autorización para las actividades de eliminación en vertedero señalándose que en el supuesto de que la actividad se encuentre sometida a la normativa sobre prevención y control integrados de la contaminación deberá obtenerse la correspondiente autorización ambiental integrada. El resto de las instalaciones deberán obtener autorización del departamento competente en materia de medio ambiente de la Comunidad Autónoma. En todo caso, con carácter previo deberá suscribirse un contrato de seguro de responsabilidad civil, así como una fianza.

Por último se fijan una serie de mecanismos para el control y vigilancia durante la fase de explotación, así como para el cese de la actividad y el periodo post-clausura. En este marco, se recoge que la persona física o jurídica que promueve estas actividades de eliminación deberá dar cumplimiento a las obligaciones señaladas en la Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo.

III. tituluan, betelanean aplika daitekeen araubide juridikoa arautzen da, eta zehazten da horrelako instalazioek udal agintaritzaren lizentzia behar dutela, azpiegitura linealeko proiektuen esparruan sortutako betelanak edo soberakin-metatzeak direnean salbu; izan ere, horrelakoetan autonomia-erkidegoan edo dagokion foru-aldundian ingurumen-gaietan eskumena duen sailari dagokio erabakitzea.

Azkenik, I., II., III., IV., V. eta VI. eranskinetan ezarzen dira, hurrenez hurren, era guztietako hondakindegitarako betekizun orokorrak, hondakindegietan eta lurpeko biltegi-instalazioetan hondakinak onartzeko prozedurak eta irizpideak, ustiapen-fasean eta ondorengo zaintzan kontrol- eta zaintza-prozedura, betelanak egiteko proiektuen gutxieneko edukia eta hondakin ez arriskutsuen adierazpena egiteko inprimakia.

Azkenik, altzairua arku elektrikoko labeen fabrikatzeak sorrarazten duen zepa balorizatzea eta gerora erabiltzea arautzen duen 34/2003 Dekretua, otsailaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatuzetik lortutako eskarmentuak agerian utzi du desberdintasun bat dagoela bere garaian aipatutako araua egiteko lortutako emaitzen eta zepa balorizatuak -zehazkiago esateko, selenioa- erabiltzea bultzatzen duten pertsona fisiko edo juridikoen lortutako emaitzen artean. Horregatik, Bigarren Xedapen Gehigarriak aipatutako Dekretuaren III. eranskineko a) atalean agertzen den muga-balioa aldatzea aurreikusten du, hartara alor horretan aurreratuena dauden Europako araudietako balioetara egokitzeko, eta material horiek ingurumen-baldintza seguruetan erabiltzeko.

Horrenbestez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. eta 22. artikuluetan aurreikusten diren izapideak egin ondoren, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuak proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorri eta Jaurlaritzaren Kontseiluak alde aurretik 2009ko otsailaren 24an eginiko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.— Helburua.

1.— Dekretu honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinak hondakindegietan biltegitratuta ezabatzeko lanei aplika dakiekeen araubide juridikoa finkatzea da, eta horretarako hondakindegimotak, hondakindegietan hondakinak onartzeko irizpide eta prozedurak, eta hondakindegia behar bezala instalatu, kudeatu eta ustiatzeko arauak ezartzea, bai eta itxiera-

En el Título III se regula el régimen jurídico aplicable a los rellenos, determinándose que este tipo de instalaciones se encuentran sometidas a licencia de la autoridad municipal, excepto cuando se trata de rellenos o depósitos de sobrantes generados en el marco de proyectos de infraestructura lineal en cuyo supuesto la competencia reside en el departamento competente en materia de medio ambiente de la Comunidad Autónoma o en la Diputación Foral correspondiente.

Finalmente los anexos I, II, III, IV, V y VI, establecen respectivamente los requisitos generales para todas las clases de vertedero, los procedimientos y criterios de admisión de residuos en vertedero y en instalaciones de depósito subterráneo, el procedimiento de control y vigilancia en las fases de explotación y mantenimiento posterior, el contenido mínimo de los proyectos para la ejecución de rellenos y el formulario para la declaración de residuos no peligrosos.

Por último, la experiencia adquirida en la aplicación del Decreto 34/2003, de 18 de febrero, por el que se regula la valorización y posterior utilización de escorias procedentes de la fabricación de acero en hornos de arco eléctrico, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco ha puesto de manifiesto una divergencia entre los resultados en su día obtenidos para la elaboración de la citada norma y los resultados que se obtienen por las personas físicas o jurídicas que promueven la utilización de escorias valorizadas, en concreto, en lo que se refiere al selenio. En este sentido, en la Disposición Final Segunda se prevé la modificación del valor límite previsto en el apartado a) del anexo III del mencionado Decreto adecuándolo así al de las normativas europeas más avanzadas en la materia, posibilitando la utilización de estos materiales en condiciones ambientales seguras.

En su virtud, realizados los trámites previstos en los artículos 19 a 22 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 24 de febrero de 2009,

DISPONGO:

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.— Objeto.

1.— El presente Decreto tiene por objeto establecer el régimen jurídico aplicable a las actividades de eliminación de residuos mediante depósito en vertedero en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, regulando para ello las clases de vertederos, los criterios y procedimientos relativos a la admisión de residuos en los mismos, la regulación para su correcta instalación,

prozedurarako eta itxiera osteko mantentzerako prozedurak ezartzea ere.

2.– Halaber, arau honen helburua da lurra eta har-kaitzak erabiliz Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan egiten diren betelanei aplika dakiekeen araubide juridikoa ezartzea.

2. artikulua.– Definizioak.

Dekretu honetan, definizio hauek hartuko ditugu aintzat:

a) Hondakinak: Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen eranskinean agertzen diren kategorietako bati dagokion osagai edo objektu oro, haren jabeak jaregin badio edo jaregiteko asmoa edo betebeharra badu. Nolanahi ere, hondakintzat hartuko dira Europako Erkidegoko erakundeek onartutako Europako Hondakin Zerrendan (EHZ) agertzen diren guztiak.

b) Hondakin arriskutsuak: indarrean dagoen araudiak arriskutsu gisa sailkatu dituenak, bai eta haiek gordezko erabilitako ontzi eta ontzikiak ere.

c) Hondakin ez-arriskutsuak: indarrean den araudiak arriskutsu gisa sailkatu ez dituenak.

d) Hondakin geldoak: eraldaketa fisiko, kimiko edo biologiko garrantzitsurik nozitzen ez duten hondakin ez-arriskutsuak. Hondakin geldoak ezin dira disolbatu, ez eta erre ere, eta ez dute erreakzio fisiko ez kimikorik, ez eta beste inolako erreakziorik ere; ez dira biodegradagarriak, eta ukitzen dituzten materialei ez diete kalterik eragiten; hots, ez dute ingurumena kutsatzen edo gizakien osasuna arriskuan jartzen. Halaber, hondakin horiek sailkatzeko lixibiagarritasun osoa aintzat hartu beharko da eta, gainera, hondakinen osagai kutsagarri kopuruak eta lixibiatzearen ekotoxizitateak hutsalak izan behar dute; bereziki, ezingo dute gainazaleko edota lurpeko uren kalitaterako arriskurik ekarri.

e) Hondakin egonkor ez errektiboak: egonkortze-prozesu batetik datozen hondakin arriskutsuak, lixibiatzeko orduan hondakin ez-arriskutsuek bezala jokatzeko dutenak.

f) Hiri- edo udal-hondakinak: etxebizitza, bulego, denda eta zerbitzu partikularretan sortzen direnak, bai eta arriskutsu gisa sailkatu ez dituztenak eta berez duten osaeragatik toki edo jarduera horietan sortutako hondakinen barruan sar daitezkeenak ere. Betiere, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean hiri-hondakin gisa definitzen diren guztiak halakotzat hartuko dira.

g) Entitate ustiatzailea: hondakindegia bat kudeatzeaz arduratzen den pertsona fisiko edo juridikoa.

h) Hondakin-sortzailea: hondakinak sortzen dituen jarduera baten titular den pertsona fisiko edo juridiko oro, edo alde zuzeneko tratamenduko eragileak, nahasketak edo hondakinen osaera edo izaera aldatzen duten bestelako eragileak egiten dituenak.

gestión y explotación, así como los procedimientos de clausura y mantenimiento post-clausura.

2.– Asimismo, es objeto de la presente norma establecer el régimen jurídico aplicable a los rellenos que, utilizando tierras y rocas, se ejecuten en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 2.– Definiciones.

A efectos del presente Decreto se entenderá por:

a) Residuos: cualquier sustancia u objeto perteneciente a alguna de las categorías que figuran en el Anejo de la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos, del cual su poseedor se desprenda o del que tenga la intención u obligación de desprenderse. En todo caso, tendrán esta consideración los que figuren en el Listado Europeo de Residuos (LER), aprobado por las instituciones comunitarias.

b) Residuos peligrosos: los que hayan sido calificados como tales por la normativa en vigor, así como los recipientes y envases que los hayan contenido.

c) Residuos no peligrosos: los residuos que no estén calificados como peligrosos en la normativa en vigor.

d) Residuos inertes: los residuos no peligrosos que no experimenten transformaciones físicas, químicas o biológicas significativas. Los residuos inertes no son solubles ni combustibles, ni reaccionan física ni químicamente de ninguna otra manera, ni son biodegradables, ni afectan negativamente a otras materias con las cuales entran en contacto de forma que puedan dar lugar a contaminación del medio ambiente o perjudicar a la salud humana. Asimismo, para la clasificación de estos residuos deberá tomarse en cuenta la lixiviabilidad total, el contenido de contaminantes de los residuos y la ecotoxicidad del lixiviado deberán ser insignificantes, en particular no deberán suponer un riesgo para la calidad de las aguas superficiales y/o subterráneas.

e) Residuos estables no reactivos: aquellos residuos peligrosos provenientes de un proceso de estabilización y cuyo comportamiento de lixiviación sea equivalente al de los residuos no peligrosos.

f) Residuos urbanos o municipales: los generados en los domicilios particulares, oficinas, comercios y servicios, así como todos aquellos que no tengan la calificación de peligrosos y que por su naturaleza y composición puedan asimilarse a los producidos en los anteriores lugares o actividades. En todo caso, se considerarán residuos urbanos aquellos residuos definidos como tales en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos.

g) Entidad explotadora: la persona física o jurídica responsable de la gestión de un vertedero.

h) Persona productora: cualquier persona física o jurídica titular de una actividad que produzca residuos, o que efectúe operaciones de tratamiento previo, de mezcla o de otro tipo que ocasionen un cambio de naturaleza o de composición de residuos.

i) Hondakin-edukitzailea: hondakinak ekoizten dituen pertsona edo hondakinak bere esku dituen eta hondakin-kudeatzaile ez den pertsona fisiko edo juridikoa.

j) Hondakin-garraiatazailea: hondakinak garraiatzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, bai hondakinon titulartasuna bere gain hartzen duenean bai ez duenean hartzen.

k) Biltegitratzea: arriskutsuak ez diren hondakinak aldi baterako gordetzea, urtebete baino gutxiagoz, deuseztatzea bada hondakinaren azken helmuga, eta bi urte baino gutxiagoz, balorizatzea bada hondakinaren azken helmuga; halaber, hondakin arriskutsuak aldi baterako gordetzea, sei hilabete baino gutxiagoz.

Kontzeptu horrek ez du barne hartzen hondakinak ekoizpen-instalazioetan biltegitratzea aurreko paragrafoan aipatutako xedeekin eta denbora-tarteak baino denbora gutxiagorako.

l) Hondakindegia: hondakinak lurpean edo lur azalean gordeta hondakin horiek ezabatzeko instalazioa.

Ez dira barne hartzen gerora balorizatu, tratatu edo ezabatzeko beste norabait garraiatuko diren hondakinak prestatzeko balio duten instalazioak.

m) Lurpeko biltegitratzea: lurpeko barrunbe natural edo artifizial batean hondakinak modu egonkorrean biltegitratuta ezabatzeko instalazioa.

n) Betelana: lurzoru naturaletik hartutako lur eta harkaitzak erabiliz, inguru baten forma aldatzea.

o) Onarpen-agiria: kudeatzaile baimenduak hondakinak onartu dituela adierazteko konpromiso-agiria.

p) Kontrol eta jarraipenerako agiria: entitate ustiatazaileak hondakinak jasotzean ematen duen agiria; hartan adierazi behar dira hondakin-sortzailearen eta entitate kudeatzaile horren identifikazio-datuak eta, hala badagokio, garraiatzaileenak, bai eta transferitutako hondakinei dagozkienak ere.

q) Kudeaketa: hondakinak bildu, biltegitratu, garraiatu, balorizatu eta ezabatzea.

r) Balorizatzea: gizakien osasuna arriskuan jarri gabe eta ingurumenari kalte egin diezaiokeen metodorik erabili gabe hondakinetan dauden baliabideak aprobetxatzeko aukera ematen duen prozedura oro.

s) Ezabatzea: hondakina botatzera edo guztiz edo partez ezabatzera zuzendutako prozedura oro, gizakien osasuna arriskuan jarri gabe eta ingurumenari kalte egin diezaiokeen metodorik erabili gabe gauzatzen dena.

t) Funtsezko aldaketa: instalazio batean eginiko edozein aldaketa, baldin eta hura baimentzeko eskumena

i) Persona poseedora: la persona productora de los residuos o la persona física o jurídica que los tenga en su poder y no tenga la condición de gestor de residuos.

j) Persona transportista de residuos: la persona física o jurídica que lleve a cabo el transporte de los residuos, asumiendo o no la titularidad de los mismos.

k) Almacenamiento: el depósito temporal de residuos distintos de los peligrosos, por tiempo inferior a un año cuando su destino final sea la eliminación o a dos años cuando su destino final sea la valorización, así como el depósito temporal de residuos peligrosos durante menos de seis meses.

No se incluye en este concepto el depósito de residuos en las instalaciones de producción con los mismos fines y por períodos de tiempo inferiores a los señalados en el párrafo anterior.

l) Vertedero: instalación de eliminación de residuos mediante su depósito subterráneo o en la superficie.

No se incluyen las instalaciones en las cuales se descargan los residuos para su preparación con vistas a su transporte posterior a otro lugar para su valorización, tratamiento o eliminación.

m) Depósito subterráneo: instalación de eliminación de residuos mediante almacenamiento permanente ubicada en una cavidad subterránea de origen natural o artificial.

n) Relleno: la alteración morfológica de una zona mediante la utilización de tierras y rocas procedentes de suelo natural.

o) Documento de aceptación: compromiso documentado de aceptación de los residuos por el gestor autorizado.

p) Documento de Control y Seguimiento: documento entregado a la recepción de los residuos por la entidad explotadora en el que constarán los datos identificadores de la persona productora y de dicha entidad gestora y, en su caso, de las y los transportistas, así como los referentes a los residuos que se transfiere.

q) Gestión: la recogida, el almacenamiento, el transporte, la valorización y la eliminación de los residuos.

r) Valorización: todo procedimiento que permita el aprovechamiento de los recursos contenidos en los residuos sin poner en peligro la salud humana y sin utilizar métodos que puedan causar perjuicios al medio ambiente.

s) Eliminación: todo procedimiento dirigido, bien al vertido de los residuos o bien a su destrucción, total o parcial, realizado sin poner en peligro la salud humana y sin utilizar métodos que puedan causar perjuicios al medio ambiente.

t) Modificación sustancial: cualquier modificación realizada en una instalación que en opinión del órgano

duen organoak, 11. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, ingurumenean eragin garrantzitsu edo kaltegarriak izan ditzakeela iritzi badio.

u) Aldaketa ez funtsezkoa: instalazioaren ezaugarri, funtzionamendu edo hedaduraren edozein aldaketa, funtsezkotzat jotzen ez bada ere ingurumenean eragina izan dezakeena.

3. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Dekretu hau aurreko artikuluan definitutako hondakindegia eta betelanei aplikatu dakieke.

2.– Arau honen aplikazio-eremutik at gelditzen dira honako jarduerak hauek:

a) lurzoruan lokatzak barreiatzea, hura ongarritu edo haren kalitatea hobetzeko, araztegiatako lokatzak eta dragatze-lanetatik datozenak barne, bai eta materia fekalak eta antzeko beste osagai ez-arriskutsuak ere

b) dragatze-lokatz ez-arriskutsuak nabigazio-bide txikietatik erauzi dituztenean, haietan biltegiatzea, eta lokatz ez-arriskutsuak gainazal-uretan biltegiatzea, ur-oheta eta haren lurpea barne

c) kutsatu gabeko lurra edo baliabide mineralen prospekzio, erauzketa, tratamendu eta biltegiatzeetik eta harrobietako lanetatik datozen hondakin ez-arriskutsu geldoak metatzea.

II. TITULUA

HONDAKINDEGIAK

I. KAPITULUA

HONDAKINDEGI-MOTAK ETA HONDAKINEN ONARPENA

4. artikulua.– Hondakindegia-motak.

1.– Hondakindegia kategoria hauetan sailkatuko dira:

- a) Hondakin arriskutsuetarako hondakindegia.
- b) Hondakin ez-arriskutsuetarako hondakindegia.
- c) Hondakin geldoetarako hondakindegia.

2.– Hondakindegia aurreko zenbakian aipatutako kategoria batean baino gehiagotan sailkatu ahal izango da, baldin eta dekretu honek bere I. eranskinean mota horretako hondakindegietarako finkatzen dituen betekizunak betetzen dituzten biltegi bereziak baditu.

5. artikulua.– Hondakin onargarriak.

1.– Hondakinak ezabatzea bidaltzeko, alde aurretik behar bezala justifikatu beharko da hondakin horiek balorizatzea ez dela bideragarria arrazoi teknikoak, ekonomikoak edo ingurumenekoak direla medio.

competente para otorgar la autorización y de acuerdo con los criterios establecidos en el artículo 11 pueda tener repercusiones perjudiciales o importantes en el medio ambiente.

u) Modificación no sustancial: cualquier modificación de las características o del funcionamiento, o de la extensión de la instalación, que, sin tener la consideración de sustancial, pueda tener consecuencias en el medio ambiente.

Artículo 3.– Ámbito de aplicación.

1.– El presente Decreto es de aplicación a los vertederos y a los rellenos que se encuentran definidos en el artículo anterior.

2.– Quedan excluidas del ámbito de aplicación de esta norma las actividades siguientes:

a) el esparcimiento en el suelo, con fines de fertilización o mejora de su calidad, de lodos, incluidos los de depuradora y los procedentes de operaciones de dragado, y de materias fecales y de otras sustancias naturales análogas y no peligrosas.

b) el depósito de lodos de dragado no peligrosos a lo largo de pequeñas vías de navegación de las que se hayan extraído, y de lodos no peligrosos en aguas superficiales, incluido el lecho y su subsuelo.

c) el depósito de suelo sin contaminar o de residuos no peligrosos inertes procedentes de la prospección, extracción, tratamiento y almacenamiento de recursos minerales, así como del funcionamiento de las canteras.

TÍTULO II

VERTEDEROS

CAPÍTULO I

CLASES DE VERTEDEROS Y ADMISIÓN DE RESIDUOS

Artículo 4.– Clases de vertedero.

1.– Los vertederos se clasificarán en alguna de las categorías siguientes:

- a) Vertedero para residuos peligrosos.
- b) Vertedero para residuos no peligrosos.
- c) Vertedero para residuos inertes.

2.– Un vertedero podrá estar clasificado en más de una de las categorías fijadas en el apartado anterior, siempre que disponga de celdas independientes que cumplan los requisitos especificados en el anexo I del presente Decreto para cada clase de vertedero.

Artículo 5.– Residuos admisibles.

1.– Los residuos únicamente podrán destinarse a eliminación si previamente queda debidamente justificado que su valorización no resulta técnica, económica o medioambientalmente viable.

2.– Hondakindegian utzita ezabatu beharreko hondakinek alde zuzeneko tratamendua jaso beharko dute. Xedapen hori ez da aplikatuko arrazoitako teknikoengatik tratatu ezinako hondakinak geldoei, ez eta beste edozein hondakin ere, baldin eta haren tratamenduak hondakin kopurua murrizten laguntzen ez badu edo hondakin horren osagaiak giza osasunarentzat edo ingurumenarentzat arrisku gutxiago izatea ekartzen ez badu.

3.– Hondakindegia-kategoria bakoitzean hondakin hauek onartuko dira:

a) Hondakin arriskutsuetarako hondakindegiek hondakin arriskutsuak baino ez dituzte onartuko.

b) Hondakin ez-arriskutsuetarako hondakindegiek hondakin hauek baino ez dituzte onartuko:

– Hiri- edo udal-hondakinak.

– Bestelako jatorria duten hondakin ez-arriskutsuak.

– Hondakin egonkor ez erreaktiboak edo egonkor-tze-prozesu batetik datozenak, lixibiatzeko orduan hondakin ez-arriskutsuek bezala jokatzeko dutenak. Hondakin horiek instalazio berean uzten diren gainerako hondakinetatik bereizitako gelaxketan gorde beharko dira.

c) Hondakin geldoetarako hondakindegiek hondakin geldoak baino ez dituzte onartuko.

4.– Instalazio batean hondakin bat onar daitezkeen zehazteko, dekretu honen II. eta III. eranskinetan adierazitakoaren arabera jokatu beharko da, eta entitate ustiatzaileek prozedura hori beteko dutela bermatu beharko dute hondakina onartu aurretik.

6. artikulua.– Hondakin onartezinak.

Hondakin hauek ez dira hondakindegia batean ere onartuko:

a) 50 gradu zentigradu baino gehiagoko tenperatura duten hondakinak.

b) % 65etik gorako hezetasuna duten hondakinak.

c) Indarrean dagoen legediaren arabera, zabor-isurketan lehertu egin daitezkeen hondakinak, korrosiboak, oxidatzaileak, oso suharberak edo suharberak.

d) Hondakin erreaktiboak.

e) Indarrean dagoen legediaren arabera infekzio-iturri izan daitezkeen hondakinak, bai eta uztailearen 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 3. taulako 14. kategoriarik dagozkion hondakinak ere.

f) Pneumatiko erabiliak, osoak zein zatikatuak, hondakindegia babesteko erabilitakoak salbu; hala ere, bizikleten pneumatikoak onartuko dira, bai eta 1.400 milimetrotik gorako kanpo-diametroa dutenak ere.

g) II. eranskinean ezarritako onarpen-irizpideak betetzen ez dituen beste edozein hondakin, eta lurpeko hondakindegietan, III. eranskinekoak betetzen ez dituztenak.

2.– Los residuos destinados a eliminación mediante su depósito en vertedero deberán ser objeto de algún tratamiento previo. Esta disposición no se aplicará a los residuos inertes cuyo tratamiento sea técnicamente inviable ni a cualquier otro residuo cuyo tratamiento no contribuya a la reducción de la cantidad de residuos o de la peligrosidad de sus componentes para la salud humana o el medio ambiente.

3.– En cada categoría de vertederos se admitirán los siguientes residuos:

a) Los vertederos de residuos peligrosos sólo admitirán residuos peligrosos.

b) Los vertederos de residuos no peligrosos podrán admitir los siguientes residuos:

– Residuos urbanos o municipales.

– Residuos no peligrosos de cualquier otro origen.

– Residuos estables no reactivos o provenientes de un proceso de estabilización, cuyo comportamiento de lixiviación sea equivalente al de los residuos no peligrosos. Dichos residuos se depositarán en celdas individualizadas del resto de los residuos que se viertan en la misma instalación.

c) Los vertederos de residuos inertes sólo admitirán residuos inertes.

4.– Para determinar la admisibilidad de un residuo en una instalación de eliminación se estará a lo señalado en los anexos II y III del presente Decreto debiendo garantizar las entidades explotadoras el cumplimiento de dicho procedimiento con carácter previo a su admisión.

Artículo 6.– Residuos no admisibles.

No se admitirán en ningún vertedero los residuos siguientes:

a) Residuos a una temperatura superior a 50 grados centígrados.

b) Residuos con una humedad superior al 65%.

c) Residuos que, en condiciones de vertido, sean explosivos, corrosivos, oxidantes, fácilmente inflamables o inflamables, con arreglo a la legislación vigente.

d) Residuos reactivos.

e) Residuos que sean infecciosos con arreglo a la legislación vigente, así como residuos de la categoría 14 de la tabla 3 del Real Decreto 833/1988, de 20 de julio.

f) Neumáticos usados enteros o troceados, con exclusión de los neumáticos utilizados como elementos de protección en el vertedero; no obstante, se admitirán los neumáticos de bicicleta y los neumáticos cuyo diámetro exterior sea superior a 1.400 milímetros.

g) Cualquier otro residuo que no cumple los criterios de admisión establecidos en el anexo II, así como los del anexo III cuando se trate de vertederos subterráneos.

h) Balorizatu daitezkeen hondakinak; hala nola beira, paper-kartoia, ontziak, eraikuntza eta eraispenetako hondakinak, egurra, tresna elektriko eta elektronikoak, eta abar. Hondakin berriak balorizatzeko kudeatzaile baimendu berriak agertu ahala, zerrenda hau erregelamenduz luzatuko da.

7. artikulua.– Hondakinak sortzen dituzten pertsonen betebeharrak: onarpen-agiria eta hondakin ez-arriskutsuak sortu izanaren adierazpena.

1.– Azken helmuga gisa hondakindegia duten hondakinak sortzen dituen orok, jatorrizko lekutik hondakinak eraman aurretik, hondakindegia baimendu bat usiatzen duen entitate batek hondakin horiek onartzeko konpromisoa hartu duela adierazteko agiria eduki beharko du nahitaez. Nolanahi ere, agiri horrek hondakinaren oinarritzko ezaugarriei buruzko informazioa eman beharko du, II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

2.– Sortzaileak eta entitate ustiatzaileak onarpen-agiariaren kopia igorri beharko diote ingurumen-organoari, eta agiri horren ale bat gorde beharko dute biek, behar bezala beteta, bost urtez gutxienez.

3.– Jardueran sortutako hondakin ez-arriskutsuak kudeaketa-instalazio batera lehen aldiz eraman aurretik, jardueraren titularrak informazio hau eman beharko dio ingurumen-organoari, proposatuko kudeaketa-bidea egokia den egiaztatu ahal izateko: sozietatearen izena, IFK (Identifikazio Fiskaleko Kodea), jarduera, ekoizpen-prozesuak, erabilitako lehengaiak, sortutako hondakin ez-arriskutsuen kopurua eta motak, Europako hondakin-zerrendaren arabera identifikatuak, eta proposatutako kudeaketa-bidea. Adierazpen horretarako, dekretu honen VI. eranskinean agertzen den inprimakia erabili beharko da.

Hondakin ez-arriskutsuak sortu izanaren adierazpen hori eguneratu egin beharko da hondakina sortu duen pertsona identifikatzeko datuak, sortutako hondakinen tipologia edo hondakin horiek kudeatzeko modua aldatzen diren bakoitzean.

II. KAPITULUA HONDAKINDEGIEN ARAUBIDE JURIDIKOA

8. artikulua.– Hondakindegien betekizun orokorrak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinak hondakindegietan utzita ezabatzeko instalazioek dekretu honen I. eranskinean adierazitako betebeharrak eta baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Lurpeko biltegien kasuan, dekretu honen I. eranskinean ezarritakoaz gain, arau honen III. eranskinean adierazitako baldintzak ere bete beharko dituzte.

h) Residuos que pueden ser objeto de valorización tales como vidrio, papel-cartón, envases, residuos de construcción y demolición, madera, equipos eléctricos y electrónicos, etc. Esta relación se verá ampliada reglamentariamente en la medida que surjan gestores autorizados para la valorización de nuevos residuos.

Artículo 7.– Obligaciones de las personas productoras de residuos: documento de aceptación y declaración de residuos no peligrosos.

1.– Toda persona productora de residuos con destino final a un vertedero, con carácter previo a su traslado desde el lugar de origen, deberá contar como requisito imprescindible con un compromiso documental de aceptación por parte de la entidad explotadora de un vertedero autorizado. Dicho documento, en todo caso, deberá incorporar información relativa a la caracterización básica del residuo de conformidad con lo establecido en el anexo II.

2.– La persona productora y la entidad explotadora remitirán al órgano ambiental una copia del documento de aceptación, debiendo conservar ambos un ejemplar del citado documento, debidamente cumplimentado, durante un periodo no inferior a cinco años.

3.– Con carácter previo a la primera entrega a una instalación de gestión de los residuos no peligrosos generados en la actividad, el titular o la titular de dicha actividad deberá trasladar al órgano ambiental, en orden a comprobar la adecuación de la vía de gestión propuesta, la siguiente información: razón social, CIF, domicilio, actividad, procesos productivos, materias primas utilizadas, tipos y cantidad de los residuos no peligrosos generados identificados de conformidad con la Lista Europea de residuos, vía de gestión propuesta. En orden a realizar la citada declaración deberá utilizarse el formulario recogido en el anexo VI del presente Decreto.

La citada declaración de generación de residuos no peligrosos deberá actualizarse cada vez que se produzca una modificación en los datos identificativos de la persona productora del residuo, en la tipología de los residuos generados o en la vía de gestión de los mismos.

CAPÍTULO II RÉGIMEN JURÍDICO DE LOS VERTEDEROS

Artículo 8.– Requisitos generales de los vertederos.

1.– Las instalaciones de eliminación de residuos mediante depósito en vertedero en la Comunidad Autónoma del País Vasco deberán dar cumplimiento al conjunto de obligaciones y condiciones señaladas en el anexo I del presente Decreto.

En el caso de los depósitos subterráneos, además de lo establecido en el anexo I de este Decreto, deberá darse cumplimiento a las condiciones contempladas en el anexo III de esta norma.

2.– Ezabatze-instalazioa baimendua izango bada, aipatutako betekizunak kontuan hartuta instalazioaren kokapenaren ezaugarriek edo hartzen diren neurri zuzentzaileek adierazi beharko dute kokapen horrek ez dakarrela ingurumen-arrisku larrik.

Ezingo da hondakindegirik jartzeko baimenik eman, baldin eta hondakindegi horrek ekainaren 23ko 1/2006 Legeak, Urarenak, bere 32. artikuluan ezarritakoaren arabera zonalde babestu gisa bereizitako lurpeko edo gainazaleko urei kalte egiteko arriskua badago.

Nolanahi ere, aipatutako akuiferoetakoak ez diren urak kutsatzeko arriskutsu edo oso arriskutsutzat hartu dituzten tokietan jarri beharreko hondakindegia justifikatzeko, dauden ur-baliabideek kalterik ez dutela izango baieztatzeko ikerketa hidrogeologiko oso eta berariazkoa aurkeztu beharko da.

3.– Hondakindegia kudeaketa trebakuntza tekniko egokia duen pertsona baten esku egongo da, eta instalazioaren titularrak, eragiketak egiten hasi aurretik zein instalazioaren bizitza baliagarrian zehar, hondakindegiko langileen heziketa profesional eta teknikoa lantzea aurreikusitako beharko du.

4.– Hondakindegiko proiektuek bat etorri beharko dute nazio, autonomia-erkidego eta probintzia mailan dauden hondakin-planekin.

9. artikulua.– Hondakinak botatzearen kostuak.

Entitate ustiatzaileak hondakinak hondakindegian ezabatzeagatik kobratu beharreko prezioak, gutxienez, gastu hauek ordaintzeko bestekoa izan beharko du: hondakindegia ezarri eta ustiatzeko kostuak, bermeetatik datozen kostuak eta gerora instalazioa ixteko eta itxi ondoren baimenak ezartzen duen epean zehar instalazioa eta tokia bera zaintzeko kalkulatzeko diren kostuak. Epe hori ez da inolaz ere hogeita hamar urtetik beherakoa izango.

10. artikulua.– Hondakindegietarako baimenen araubidea.

1.– Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak eta, hala badagokio, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeak eta dekretu honek arautzen duten hondakinak ezabatzeko lanetarako baimentze-araubidearen mende dago hondakindegia ezarri, handitu eta aldatzea.

2.– Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen arabera, hondakin ez-arriskutsuen eta arriskutsuen hondakindegietako jarduerak ingurumen-baimen integratua behar dute nahitaez, baldin eta eguneko 10 tona baino gehiago jasotzen badute edo guztira 25.000 tona baino gehiagoko gaitasuna badute.

3.– Aipatutako uztailaren 1eko 16/2002 Legeak adierazitako baimen-araubidearen mende ez dauden hondakindegiek dekretu honetan araututako baimena lortu

2.– La instalación de eliminación sólo podrá ser autorizada si las características del emplazamiento con respecto a los requisitos mencionados, o las medidas correctoras que se tomen, indican que aquél no plantea ningún riesgo grave para el medio ambiente.

No podrá otorgarse autorización para la instalación de un vertedero cuando su implantación pueda afectar a aguas subterráneas o superficiales identificadas como zonas protegidas de conformidad con el artículo 32 de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas.

En todo caso en los vertederos a ubicar en zonas definidas como de vulnerabilidad alta o muy alta a la contaminación de acuíferos distintas de las anteriores deberá justificarse mediante un estudio hidrogeológico completo y específico que los recursos hídricos existentes no se verán afectados.

3.– La gestión del vertedero estará en manos de una persona con cualificación técnica adecuada, debiendo el titular de la instalación prever el desarrollo y la formación profesional y técnica del personal del vertedero tanto con carácter previo al inicio de las operaciones como durante la vida útil del mismo.

4.– Los proyectos de vertedero deben ser conforme a los planes de residuos existentes a nivel nacional, autonómico y foral.

Artículo 9.– Costes del vertido de residuos.

El precio que la entidad explotadora cobre por la eliminación de los residuos en el vertedero cubrirá, como mínimo, los costes que ocasionen su establecimiento y explotación, los gastos derivados de las garantías así como los costes estimados de la clausura y el mantenimiento posterior de la instalación y el emplazamiento durante el plazo que fije la autorización, que en ningún caso será inferior a treinta años.

Artículo 10.– Régimen de autorizaciones para los vertederos.

1.– La implantación, ampliación y modificación de vertederos está sometida al régimen de autorizaciones prevista para las actividades de eliminación de residuos regulado en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, en su caso, en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos y en el presente Decreto.

2.– De conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación las actividades de vertedero de residuos no peligrosos y residuos peligrosos que reciban más de 10 toneladas por día o que tengan una capacidad total de más de 25.000 toneladas, están sujetos a la obtención de la autorización ambiental integrada.

3.– Los vertederos que no se encuentren sometidos al régimen autorizador señalado en la mencionada Ley 16/2002 de 1 de julio deberán obtener la autorización

beharko dute, beste xedapen batzuek eska ditzaketen bestelako baimen edo lizentziez gain.

4.– Nolanahi ere, eta uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 12. artikuluan eta haren ondorengoetan xedatutakoaren kalterik gabe, hondakindegia ezarri, handitu eta aldatzeko baimenak hurrengo kapituluan adierazitako prozeduraren arabera emango dira.

11. artikulua.– Hondakindegia handitu edo aldatzea.

1.– Hondakindegia bat handitu edo aldatzeko dekretu honetan araututako baimena behar den eta, horrenbestez, horretarako araututako prozedura bete behar den zehazteko, alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Instalazioaren tamaina.
- b) Instalazioaren eragina izan dezaketen baliabide naturalak.
- c) Instalazio horien ur- eta energia-kontsumoa.
- d) Kaltetu daitezkeen eremu geografikoetako baliabide naturalen kalitatea eta biziberritze-ahalmena.

e) Sortuko duen kutsadura-maila.

f) Istripuen arriskua.

g) Onartuko dituen hondakinen tipologia-aldaketa.

2.– Lehendik dagoen hondakindegia bat handitu edo aldatzeko, entitate ustiatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan horretarako eskumena duen organoari jakinarazi beharko dio, eta arrazoiak eman eta justifikatze-agiriak erantsiz azaldu beharko dio, aurreko letran aipatutako irizpideen arabera aldaketa garrantzitsu edo garrantzirik gabetzat hartzen duen.

3.– EAEn ingurumen-gaietarako eskumena duen sailak erabakiko du, hiru hileko epean, aipatutako irizpideen arabera, proposatutako handitze edo aldaketak baimenik behar duen ala ez.

